



Kronika

2018/07/23



HERNANI *Uztailak 23*



albisteak//TXOTX IREKIERA

Txotx! irekiera gailurrera igo da

Martxan da astelehenetik, sagardotegi denboraldi berri «historikoa». Aurreneko kupela ireki, eta Iñurrategik hartu zuen aurreneko tragoxka Gurutzetan. Herritarren txanda izan zen arratsaldean!

ASTIGARRAGA

2018/01/17 00:00 Asteazkena

Gurutzeta sagardotegian egin zen 2018ko Txotx! irekiera eta 25garren urteurrenean esan daiteke gailurrera igo dela. Hemendik gora zaila izango da iristea, alde batetik, Alberto Iñurrategik ireki bait zuen denboraldia eta Aretxabaletako mendizaleak mendi tontor garaienetara iritsi da. Bestetik, aurtengo uzta eta txotx denboraldia historikoa izango delako hainbat eragilerengatik eta batipat, bertako sagarraren uztak errekor guztiak apurtu dituelako kopuruaren arabera. Sei milio kilo sagar bildu dira eta horrekin 4 milioi litro Euskal Sagardo ekoiztu dira.

«Gure sagardo berria», Gurutzetan

«Gure sagardo berria» ohiu eginda eman zitzaion hasiera, baina aurretik, Sagardoetxean, 2017ko uztaren ezaugarriak azaldu ziren eta Iñurrategi berak sagarrondo bat landatu zuen, baina ez zen bakarra izan. Andoni Egaña, Jose Luis Korta, Abraham Olano eta Andoni Luis Adurizek ere landatu zuten berea. Ekitaldi polita izan zen egun guztian zehar bizi izan zena. 25garren urteurrena beti da berezia eta ekitaldiek urteroko ildoa jarraitu arren usain eta zapore berezia zuten, aurtengo sagardoa bezala. Adituen arabera «oreka» da bere ezaugarri nagusia. Honela, gonbidatu berezi ugari egon ziren Gurutzetako irekieran, azken 25 urtetan protagonista izan diren asko eta asko. Horien artean; Egaña, Javier Clemente, Olano, Korta, Periko eta Mikel Alonso, eta Aduriz sukaldaria. Jon Maia eta Amets Arzallusek bertsoak bota zituzten eta aurrekoa ere dantzatu zen kupela ireki aurretik. Ondoren bazkari eder bat egon zen sagardotegi bertan.

Sagardo orekatua, argiagoa eta usaimen oso garbia

2017ko uztarekin 12 milioi litro sagardo ekoiztu dira Euskal Herrian. Ekoizpenaren %30 bertako sagarrarekin egindakoa eta Euskal Sagardoa Jatorri Izendapeneko da. Guztira 48 sagardotegik egin dute Euskal Sagardora bideratutako sagardoa: Gipuzkoako 41ek, Bizkaiako 5ek eta Arabako 2k. Aurreko urteetan baino kolore argiagoa duen sagardoa da. Usaimenean oso garbia da. Lehendabiziko sagarrekin egindako sagardoek fruta freskoaren usaina dute eta uztaren erdialde nahiz amaierako sagarrekin egindakoek, fruta usain helduagoak dituzte. Karboniko maila ona duten sagardo naturalak dira, kupeleko hartzidura ondo egin baita. Orokorrean, sagardo oso orekatua da.

Arratsaldean erreleboa Astigarragako herritarrek hartu zuten

Goizeko ekitalde arratsaldean irekiera herrikoiak hartu zion erreleboa. Bertan, 'famatuek' ez zuten leku berezirik eta herria zen protagonista nagusia. Herriko haurra, gazte eta helduak Murgia Jauregian bildu ziren; lehendabizi familientzako tortila tailerrean eta ondoren, herritarrei irekitako pintxo eta sagardo dastaketan. Kupelak jarri zituzten herriko sagardotegiek eta taberneak sagardo berria eskaini zuten. Beste behin ere txotx irekiera borobila bizi izan zuen Astigarragak.

“ **ALBERTO IÑURRATEGI «Irekierarako aukeratu izana ohore haundi bat da»**

«Sagardoaren Lurraldeak erronka ikaragarria du» nabarmendu zuen Alberto Iñurrategik. Alberto Iñurrategi izan zen, sagardo berriarekin batera, protagonista nagusia txotx irekieran. Mendizalea ohituta dago tontorretara igotzen, baina atzokoa

lan berria zuen. Hala ere ederki moldatu zen eta sagardoaren mundua ere ederki ezagutzen duela nabarmendu zen bere hitzetan. Honela, «ohore bat» zela azpimarratu zuen bera aukeratu izana sagardotegien denboraldia irekitzeko.

Alberto Iñurrategik uste du «Sagardoaren Lurraldeak erronka ikaragarria duela. Produktu naturala da, kalitatezkoa, bertakoa eta gainera ingurumenarekin bateragarria izango dena egitea meritu haundikoa da. Modu batera edo bestera, 20garren mendean, garapen ereduak ahaztuta utzi zuen lehenengo sektorea berreskuratzeko bide horretan urrats benetan interesgarria da eta horrexegatik balio horiek dituen proiektu batek, nire laguntza txiki hori ematerako orduan ez dut inolako zalantzarik izan». Sagardotegiak asko gustatzen zaizkio mendizaleari eta «aste barruan saiatzen naiz urtez urte bisita bat edo beste egiten eta egia esan disfrutatzen dut sagardotegietan».

ARGAZKIAK



[Tweet](#) [Whatsapp](#) [Emaila](#) [Inprimatu](#)

IRUZKINAK

0 iruzkin [kronika-eus](#)

[1 Saioa hasi](#) ▼

[Gomendatu](#) [Partekatu](#)

[Zaharrenetik hasita](#) ▼



Hasi eztabaida...

HASI SAIOA HONEKIN

EDO ERREGISTRATU DISQUS-EKIN [?](#)



Izena

Egin lehen iruzkina.

[Harpidetu](#)

[Gehitu Disqus zure webgunera](#)

[Disqus' Privacy Policy](#)

DISQUS